


berria

Tente nago, baina ez naiz tentela. Argala naiz, baina ez naiz ergela. Buruargia naiz, eta deitzen naiz.... **Zer ote?**



Beldurraren festa

EDER EBAR

ZORION AGURRAK



Azaroaren 4an 2 urte betetzen dituzenez, zoriondu nahi zaitugu, maitea. Aunitz urtez! **Familiaren eta bereziki attona, osaba Oier eta amatxiren partez.**



ZOZKETA

Kaixo, MANTANGORRIREN zaleok! Aspaldi honetan ez dugu zozketarik egin, eta liburuak pilatzen ari zaizkigu apaletan. Horregatik, pentsatu dugu badela garaia zuen lana eskertzeko: **azaroaren 3ra bitarte, marrazkiak bidaltzen dituzuenen artean bost liburu sorta zozkatuko ditugu.** Azaroaren 7ko MANTANGORRIN argitaratuko ditugu irabazleen izenak. Zorte on!



Zorionak, **Goiatz.** Datorren asteazkenean 9 urte beteko dituzu. Oso ondo ospatuko dugu tarta goxo batekin. Muxuak **Liherr, Intza, aitatxo, amatxo eta familia guztiaren partetik.**



Zorionak, **Lizar.** 2 urte eder zurekin batera, itxialdi eta momentu goxoekin. Mundu hobe bat merezi duzu, egin dezagun bidea elkarrekin. Muxu erraldoiak. **Aitona, amona, Ruth, Beñat, Eneko eta Irati.**



Zorionak, **Maitane!** Urriaren 27an 10 urte bete zenituen. Nork esan, baina dagoeneko bi eskuetako hatzak osatu dituzu. Segi orain arteko alaitasunarekin!!! Muxu handi bat **maite zaituztegun guztion partetik.**



Ospatu ditugu: nahi bezala ez, baina bai ahal bezain ongi. Bide berriak ireki eta datorrenean hobeki. **Jare,** mila zorion eta mila muxu!



Zorionak, **Jare!** Asteazkenean 6 urte bete zenituen. Izugarri maite zaitugu! Ilargiraino eta bueltan! Gora bihotzak!



Zorionak, neska handi! Asteazkenean 7 urte mando egin zenituen. Ondo pasatu gaurko txokolatadan, eta hartu muxu handi-handiak **aita, ama eta, batez ere, Manexen partez!**

MUNDUARI ADI

GAU BELTZA

Izuak jantzitako gaua



1.

ZER DA GAU BELTZA?

Ohitura bat, ospaki-zun bat eta arbasoek utzitako legatua. Hori guztia da Gau Beltza edo Arimen Gaua. Herrietako gazteek, izara bat soinean jantzita, baserrietako kalabazak eta arbiak osten zituzten antzina. Kalabazen barrena hustu, eta aho, begi eta sudur zuloak egiten zizkieten. Kalabaza barruan kandela bat sartu, eta herritarrek izutzen zituzten gau horretan herriko gazteek.



MUNDUARI ADI GAU BELTZA



VURI GRIPAS / EFE

2.

JATORRIA: NONDIK DATOR?

Bilakaera eta historia luzea du Gau Beltzaren ospakizunak munduan barrena. Irlandan du jatorria toki askotan egiten den ospakizunak; tradizio zeltan, hain zuzen. Gaurko gauez Samhain festa ospatzen zuten irlandarrek. *Samhain*-ek udaren amaiera esan nahi du. Ospakizun horrekin, amaitutzat ematen zuten uzta garaia, eta negua hasten zen haientzat. Gaur hildako arbasoak omentzeko aprobetxatzen zuten, eta haien espirituak festara gonbidatzen zituzten. Gero, kristauak bere egin zuten, eta kutsu erlijiosoa ematen saiatu ziren. Irlandan tradizio paganoari eutsi zioten. Euskal Herrian, kalabaza eta arbiekin bihurrikeriak egiten aritzen ziren herriko gazteak, helduak izutzeko, eta baita hildakoak oroitzeko ere. Halere, ez dago frogatua Euskal Herriko ohiturak loturarik duenik Irlandan egindakoein.

4.

ZER OSPATU

Gau Beltza XX. mendearen hastapen Herrian, eta 1950eko hamarkadara berriz gaur egun arte, herri askotan galdu egin ondoren lekutan usadioari berrekiteko ahalekiak egin dira. Garaia sinbolizatzen zuen bitarteko gauak. Uzta garaia bukatzeko gauak, bi aroren artean hildakoak oroitzeko baliatzen zen gauak.

3.

EZ DA HALLOWEEN?

All hallows evening (santu guztien arratsaldea) esamoldearen laburpena da *Halloween*, eta Eskozian du jatorria. Irlandako eta Eskoziako herritar askok Ameriketako Estatu Batuetara joan behar izan zuten, eta hara eraman zuten festa. 1840. urtean ospatu zen estreinakoz han, eta gaur-gaurkoz oso hedatuta dago. Pixkanaka, hango ezaugarriak hartzen hasi zen, eta saltokiez ere jabetu zen. Mozorro beldurgarriak erosi, eta, horiek soinean, gozokiak biltzen dituzte hurrek. Horretarako, «Saria ala ziria» (ingelesez, «*trick or treat*») esaten dute etxez etxe. Hildakoen espirituak berreskuratzeko jai bat zena umeek gozokiak eskatuz gozatzeko festa bilakatu da.





BRAIS LORENZO / EFE



ZEN DA?

metan hasi zen ospatzen Euskal bitarte iraun zuen. Ondoren, eta egín da erritua, eta beste zenbait ginean dabilta. Jatorrian, uzta n urriaren 31tik azaroaren 1era aera eta neguaren etorrera mar- teko trantsizio festa. Horrez gain, au hori.

5.

ADIBIDEAK HERRIETAN

Toki askotan ahanzturan eroritako tradizioa den arren, badira Gau Beltzaren ospakizunari eutsi dioten hainbat herri. Barakaldon, Lekeitioan, Areatzan, Ondarroan (Bizkaia), Mutrikun, Andoainan, Oiartzunen, Pasai Donibanen eta Aretxabaletan (Gipuzkoa), esaterako, nork bere erara antolatzen du izuaren festa.

BITXIKERIA

BA AL ZENEKIEN?

Trick or Treat (trikimailua edo tratua) esamoldea zelten tradizioari lotuta dago. Horren arabera, festa ospatzera zetozen espirituen artean, baziren gaiztoak, eta horiek uxatzeko egiten zen. Onena tratua egitea zen. Gainontzean, espirituak begiz jo, eta trikimailua egiteko arriskua zegoen. Euskal Herrian ez zen horrelako esamolderik erabiltzen, baina zenbait berri sortzen ari dira. Esaterako, Mutrikun sortu dutena:

xumli, xumla, Txingili, txangili, txango. Gau beltza, beltzago; Kalabazek argituko. Janaria eman arte, Ez gara joango!



● Euskara eta natura oinarri dituen Gau Beltza berreskuratzeko ahaleginak egiten ari dira toki askotan. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

6. USADIO ZAHARRA BERRASMATUZ



Ohitura zaharra berreskuratu eta berrasmatzeko asmo irmoa erakutsi dute askok Euskal Herrian azken boladan. Josu Ozaitak eta Jaime Altunak, esaterako, *Hildako kalabazen berpiztea* liburua argitaratu zuten 2018an. Gau Beltzaren jatorri eta joera gaurkotuak aztertu zituzten. Ildo beretik, Euskaltzaleen Topaguneak tradizioa berrasmatzeko bidea hasi du. Tradizioaren inguruko ikastaroak antolatu, eta *gaubeltza.eus* izeneko webgunea ondu dute. Bertan, tokian tokiko Gau Beltza sortzeko baliabideak bildu dituzte. Besteak beste, kalabaza eta makillaje tailerra, festa antolatzeko urratsak eta *Gau Beltza* dokumentala. Euskarari eta naturari lotutako usadioaren bertsio gaurkotua sustatu nahi dute.



● Irudian, iazko Gaba Beltza Mutrikun (Gipuzkoa). BUSTURIALDEKO HITZA



DENBORA-PASAK



1. Asmatu eta margotu.

Gau Beltzerako mozerro beldurgarria prest du Goranek.

Egin eragiketak, marrazkia kolorez janzteko.

$$2 + 2 = \underline{\quad} \quad \text{Berdea}$$

$$5 - 4 = \underline{\quad} \quad \text{Laranja}$$

$$3 + 4 = \underline{\quad} \quad \text{Urdina}$$

$$11 - 8 = \underline{\quad} \quad \text{Horia}$$

$$10 : 5 = \underline{\quad} \quad \text{Arrosa}$$

$$3 \times 2 = \underline{\quad} \quad \text{Gorria}$$


$$8 - 3 = \underline{\quad} \quad \text{Morea}$$

2. Lotu erdiak.

Saraik apaingarriak egin ditu Arimen Gaua ospatzeko. Lotu apaingarri bakoitzaren bi zatiak.



Erantzunak: 1-1-A, 2-D, 3-B, 4-H, 5-G, 6-E, 7-C eta 8-F.



A



B



C



D



E



F



G



H

3.

Puzlea.

Maite sorgina erratz gáinean igota dabil, hara eta hona.

Jarri puzzleko pieza bakoitza bere lekuan, irudia osatzeko.



AZOKA

Josu Ozaita

IDAZLEA

«Gau Beltzean gaztetxoek beldurtzen dituzte helduak»

Gau Beltza du ardatz liburuak. Zer da?

Gau Beltza ospakizun berri bat da, Euskal Herriko tradizio hainbat elementu berrinterpretatu eta gaur egunean barneratzen dituen. Adibidez, gure gizarteko zaharrek, haurrak zirenean, baratzeetatik kalabaza edo arbiak lapurtu, hustu, aurpegi forma eta kandela bat jarri, eta bide bazterretan jartzen zituzten, jendea beldurtzeko. Gau Beltzean, baratzeeko kalabazak du protagonismoa.

Protagonistak, Anarik, Halloween ospatu nahi du, ordea. Zein da aldea?

Gaur egungo errealitatea erakusten du: haur gehienek Halloween ezagutzen dute, komunikabide eta ingeles eskolen bitartez batik bat. Ospatu nahi dute, oso erakargarria zaielako: gauez da, lagunartean, moztarotuta, goxokiak jaten dituzte eta beldurraren emozioa dago. Baina, gero, deskubritzen dute Gau Beltza sortu dezaketela: euskaraz, bertako ezaugarriekin, beraiek egindako moztarroekin, herriko gaztetxo guztiak batera elkarturik eta beldurrak sorturiko adrenalina puntu handiagoarekin. Gau Beltzean gaztetxoek beldurtzen dituzte helduak.

Hiru belaunaldi ageri dira, alaba, ama eta aitona. Zer ikuspegi erakusten du bakoitzak?

Anarik Halloween ospatu nahi du, amak ez dio uzten, Halloween kanpoko ohitura delako eta kontsumismoarekin lotzen duelako. Aito-

LIBURUA

- ◉ **Izenburua:** 'Gau Beltza'.
- ◉ **Testua:** Josu Ozaita.
- ◉ **Marrazkiak:** Joseba Larratxe.
- ◉ **Orrialde kopurua:** 88 orrialde, zuri-beltzean.
- ◉ **Prezioa:** 12 euro.
- ◉ **Adina:** 8 urtetik aurrera.
- ◉ **Argitaratzailea:** Txalaparta.





na azaltzen da, eta bere umezaro-ko kalabaza eta arbiekin egindako bihurrikariak kontatzen ditu. Ipuin honekin, Jaime Altunarekin batera burutu nuen antropologia ikerketak, *Itzalitako kalabazen berpiztea*, hurrei beste hizkuntza edo modu batean itzultzea izan da. Fikzioa eta antropologia uztartuz, transmisio lana egiten du.

Gauzak aldatu eta galdu egiten dira. Hortaz jabetzeko ere balio du kontakizunak?

Hori da! Haurtzaroa aldatu da, jolasak aldatu dira, balioak ere bai, heriotza aldatu da... Nola ez dira, ba, tradizioak aldatuko? Tradizioak ez badira gaurko egunera egokitzen, galdu egiten dira, edo, talkak sortzen dira.

Balio batzuk sustatzeko balio dezake? Zeintzuk?

Balio horiek egiten dute desberdin Gau Beltza. Euskaraz da, moztarotak norberak sortzen ditu, herri batzuetan garai bateko puska biltzeak berreskuratu dira, hau da, etxez etxe taldean janaria eskatzea, eta, gero, denak batera elkartean jatea. Naturarekin ere beste harreman bat sortzen du. Ildo honetatik, baratzean sarturiko kalabaza haziak dira protagonista.



JOLASA Kabaddi

DATUAK

Kontinentea: Asia (Nepal).

Materiala: Klariona.

Adina: 10-16 urte bitartean.

Lantzen dituen alderdiak: Motrizitatea eta elkarlanaren garrantzia.

Iturria: Munduko jolasak (Txatxilipurdi).

Webgunea:

www.txatxilipurdi.com



txatxilipurdi

Nola jolasten da? Bost eta zortzi kide arteko bi talde egin behar dira. 5 x 10 metroko eremu bat bi zati berdinetan zatitu, eta alde bakoitzean talde bat jarriko da. Txandaka, talde bateko kide batek beste taldearen eremura igaro behar du, eta eremu horretako taldeko kide bat ukitu. Hori gertatzean, eremu horretako taldekideak beste taldekoaren atzetik korrika hasiko dira, harrapatu nahian. Beste taldeko kide bat ukitu eta norberaren eremura heltzea lortzen bada, ukitu den kidea jolasetik kanpo gertuko da tarte batez. Iheslariak, beriz, puntu bat lortuko du bere taldearentzat. Bestalde, bere eremura heldu aurretik harrapatzen badute, iheslaria gertuko da jolasetik kanpo momentuz. Kide bat edo gehiago jokatik kanpo baldin badu talderen batek, eta beste taldeko kide bat kanporatzea lortzen badu, kanpoan dagoen bere taldeko bat jolastera bueltatuko da. Jolasa bukatu da talde batek hamar puntu egitea lortu edo beste taldeko kide guztiak bi aldiz kanporatzea lortzen duenean.

OSTATU

matin

